

Garazi Arrula Ruiz
GU ORDUKO HAUEK



NARRATIBA

192 or. | 12 x 19 cm. | TAPA GOGORRA

Salneurria 17,20 €

ISBN 978-84-17065-17-1



Zortzi ipuinez osatua da Garazi Arrularen lehen liburua, eta azken ipuinak ematen dio izenburua obrari: Gu orduko hauek. Gu pluraleko lehen pertsona da. Norbera parte den kolektiboa adierazten du, beraz. Atxikimendu sentimendu bat, eta, aldi berean, multzo horretan ez daudenekiko diferentzia. Ordukok distantzia dakar gogora, iragan den garaia; denborazko distantzia, nahitaez fisikoa, lekuzkoa ere badena. Hauek, berriz, erakusle hurbilena da; ingurukoak adierazten ditu, nahiz eta norbera ez den zaku horretako parte. Hirurak elkarrekin jarriz gero, multzo bakarrean, bereizketa horiek guztiak ikusgarri egiten di-

ra. Hala, bada, distantzia dago ipuinotan: ezberdinaren aurrean sentitzen den bestetasuna; errealitatea eta fantasia banatzen duen bitartea; desiraren zirrikietatik sartzen den urruntasuna; senidetasunak gaingiditzea lortzen dez duen hesia; gizakion artean dagoen inkomunikazio hitsa.



Garazi Arrula Ruizek (Tafalla, 1987) itzulpengintza eta interpretazioa lizentzia ikasi zuen eta orain tesia egiten ari da autoitzulpenaren arloan. Haurrentzako eta helduentzako zenbait literatura lan

ekarri ditu euskarara; besteak beste, Walter Benjamin, Anaïs Nin eta Amélie Nothomben obra bana. Hau du lehen liburua.



San Isidro, 35-1A
31300 Tafalla Nafarroa
Tfno. 948 703 934
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.eus